

hezkuntzako

IRALE

HLEA

✓ **R ikastaroak finko eta ordezkoez**

Datorren ikasturterako IRALE txostena prestatzen ari da Eusko Jaurlaritzaren Euskara Saila. Momentuz, hezkuntzaren lan-legepeko langileen euskara eskakizun berriaren zain bagaude ere, berri batzuk aurreratu dizkigute, eta, gainera, oso berri onak.

- Mantentzen dute behin-betiko eta behin-behinekoentzako LH2 ateratzeko aukera.
- Mantentzen dute behin-betiko langileentzako R300 ikastaroa (Euskara sendotzeko ikastaroa).
- Ezartzen dute R300 ikastaroa ordezeko bakanteduentzat.

✓ **Liberazioak eskatzeko egutegia**

Animatzen bazarete eskaintzen diren ikastaroren bat egiteko, hona hemen eskatzeko epeak (aldaketarik ez balego):

- Behin-betiko langileak: otsailaren 21etik martxoaren 4 arte (biak barne).
- Behin-behineko langileak: urriaren 11tatik 21 arte (biak barne).

✓ **Txandak**

Lan-legepeko irakasleok eta hezitzaileok beste irakasleek dituzten baldintza berberak ditugu txanda kopuruari dagokionez.

Beraz, inoiz ez baduzu txanda bat ere eskatu, baten bat eskatu baduzu edo agortuta badituzu (baina benetako gogoak badauzkazu) behar duzun euskara maila ateratzeko edo daukazuna sendotzeko, informa zaitez, aukera asko baitago★

Formakuntza Fondona

Urtero gertatzen den bezala, aurreko urtean egindako preskakuntzarako ikastaroen dirulaguntzak eskatzeko epea irekitzeaz dago. Beraz, 2004 urtean zuen lanarekin zerikusia duten hobekuntza ikastaroak egin bazenituzte, aukera daukazu dirulaguntza bat jasotzeko.

Egun ez dakigu data zehatza baina egon zaitezte erne egun hauetariko batean epea irekiko baita.

Dirulaguntza hau eskatzeko aurkeztu beharko dituzuen agiriak dira:

- ✓ Eskabide-orria beteta
- ✓ NANA
- ✓ Egin zenuten ikastaroa ematen duen entitateak egindako egiaztagiri/ordainagiria datu hauekin: zuen izena, ikastaroaren izena, iraupena eta balioa (beti 2004ko urteari dagokiolarik).
- ✓ Ikastaro horiei dagozkien urteko banketxeko abonugiriak.

Agiri guztiek jatorrizkoak izan behar dute, baina kopiak ere onartuko dira jatorrizko zigilua badute★

Azken orduko arazoren bat ez bada gertatzen, horrela deituko da Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaileentzako euskara agiria, HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria).

Perfil hori jasotzen duen dekretuaren zirriborroa aurkeztu ziguten urtarrilaren 11n eta momentu honetan sindikatuon ekarpenak aztertzen daude dekretuarekin aurrera jarraitzeko.

Laburbilduz, hizkuntza eskakizun berri hau HBLEM-ren antzekoa da, HE1 eta HE2-ren artean dago. HLEA perfila jasotzen duen dekretuak ere dio B eta D ereduak plazak betetzeko HLEA eskatuko dutela, eta, A ereduarekin HE1. Derrigorrezkotasuna hauxe izango da: HLEA beharko den plazetan, menderatua; eta HE1eko plazetan, 3 urte baino gehiagokoa, hau da, hurrengo 3 urteetan ez da eskatuko, eta epe horretan, dekretu baten bidez, data zehatza finkatuko da.

STEE-EILAS bat dator dekretu eta perfil berri honekin beste garai batean HBLEMa onartu genuen bezala. Gure ustez, bada ordua behin-betiko hizkuntza eskakizun bat izateko, euskal eskoletan eta euskaraz ikasteko eskubidea duten ikasleekin lan egiten dugula eta euskaraz diharduten beste lankide batzuekin elkarrekin lan egin behar dugula errekonozitzeko.

Gure lana beste pertsona batzuei integratzen laguntzea bada, lehenengoz, ba, gu geu integratu beharko gara, ezta? Honetaz informazio zehatza goa izango dugunean, jakinaraziko dizuegu★